

ICILS 2023

INTERNATIONAL COMPUTER LITERACY STUDY
(KONPETENTZIA DIGITALARI BURUZKO NAZIOARTEKO AZTERLANA)

APLIKAZIOA: APIRILAREN 11TIK – MAIATZAREN 19RA



ICILS 2023

ZER DA ICILS AZTERLANA?

Eskala handiko nazioarteko azterlana konparatibo bat da, DBHko 2. mailako ikasleen **kompetentzia digitala** ebaluatzen duena.

Kompetentzia digitaleko ikasleen errendimendua ebaluatzeaz gain, ICILSek ikasleen eskola- eta familia-testuinguruari buruzko informazioa biltzen du.

2013an egin zen lehen aldiz, eta 5 urteko aldizkakotasuna du.

ICILSen edizio honetan munduko lau kontinentetako 33 herrialdek hartuko dute parte.

ZEINTZUK DIRA AZTERLANAREN ERAKUNDE ARDURADUNAK?

ICILS azterlana **IEAk** (Hezkuntza-errendimendua Ebaluatzeko Nazioarteko Elkarte) sustatzen du).

Azterlana honako hauek koordinatzen dute:

- Estatuan: Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioko **INEE** (Hezkuntza Ebaluaziorako Institutu Nazionala).
- EAEn: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailako **ISEI-IVEI** (Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Institutua).

ICILS AZTERLANAK AHALBIDETUKO DU...

- Ikasleak ikasteko, lan egiteko eta mundu digitalean parte hartzeko nola prestatzen diren ikertzea.
- XXI. mendeko gazteen funtsezko konpetentzia digitalen garapenarekin lotutako erronka berriei eta konstanteei heltzea.
- Ikasleen konpetentzia digitalari eta pentsamendu konputazionalari buruz nazioartean aldera daitezkeen adierazleak sortzea (2030erako Europako helburua).
- Konpetentzia digitalean eta pentsamendu konputazionalean denboran zehar izandako aldaketak gainbegiratzea.
- Ikastetxeetan teknologia digitalen erabilera aztertzea, bereziki nola erabiltzen diren ikasleen oinarrizko konpetentzia digitalak garatzeko.
- Hezkuntza-politikei eta -praktikei buruzko erabaki oinarrituak hartzea.

NORTZUK PARTE HARTUKO DUTE?

EAEko 6 ikastetxek hartuko dute parte Estatuko laginean. Oraingo honetan, EAEk ez du parte hartuko lagin propioarekin.

- Laginerako hautatutako ikastetxe bakoitzean ausaz aukeratutako DBHko 2. mailako ikastalde bateko **ikasleek**.
- DBHko 2. mailan eskolak ematen dituzten 15 **irakaslek**.
- Ikastetxeko **IKTen arduradunak**.
- Ikastetxeko **zuzendariak**.

ZERTAN DATZAN PROBA?

Aplikazio osoa formatu elektronikoan egiten da.

- Ikasleek erantzun beharko diete kompetentzia digitalari buruzko **proba kognitibo** bati (60 minutu) eta **testuinguru-galdetegi** bati (25 minutu inguru), gailu digital baten bidez (ordenagailua, iPad, Chromebook).
- Ikastetxeko zuzendariak, DBHko 2. mailan irakasten duten irakasleek eta ikastetxeko IKTen arduradunak online erantzun beharko diete **testuinguru-galdetegi** bati (25 minutu inguru).
- E2 izango da aplikazioaz arduratuko den enpresa.

[HTTPS://WWW.EDUCACIONYFP.GOB.ES/INEE/EVALUACIONES-INTERNACIONALES/ICILS.HTML](https://www.educacionyfp.gob.es/inee/evaluaciones-internacionales/icils.html)

